

PMP® ziurtagiria, proiektu-zuzendarientzako nazioarteko egiaztapenik ospetsuena, lortzeko programa atera dute Innobasquek eta MUK

2008/10/23

Ø **Project Management Institutek proiektu-zuzendarientzat emandako PMP® lanbide-gaitasunaren ziurtagiria lortzeko lehen programa azaroan jarriko da abian.**

Ø **Nazioarteko lanbide-egiaztapenik ospetsuena da.**

Donostia, 2007ko urriaren 13a. Mondragon Unibertsitateak eta Innobasquek sinatutako aliantza estrategikoari esker, Euskadi Europa mailako erreferentzia izango da proiektu-zuzendarien prestakuntzaren eremuan. Enpresa eta erakundeetan gero eta garrantzi handiagoa du eremu horrek, gainera. Iragan maiatzean sinaturiko akordioari esker, hain zuzen, bi erakundeek aurrerapausoa eman dute proiektuak kudeatzeko nazioarteko arauak finkatzen dituen erreferentziako erakundeak, Project Management Institutek (PMI), eskainitako ziurtagiriaren programa eskaintzeko.

Innobasquek eta Mondragon Unibertsitateak lankidetzan dihardute proiektu-zuzendarientzako prestakuntza-programa hori antolatzen. Proiektuak kudeatzen esperientzia eta unibertsitateko goi- edo erdi-mailako titulazioa duten profesionalentzat egindako programa da. Programak PMP® ziurtagiria lortzeko azterketa gainditzeko ezinbesteko prestakuntza eskaintzen du. Agiri hori, berriz, munduko erakunde gehienek beren proiektu-zuzendariei eskatzen diete.

Programari esker, innobasquek eta Mondragon Unibertsitateak honako helburu hau lortu nahi dute: Euskadin egiaztapen horren jabe diren proiektu-kudeatzaileen defizita gutxitzea. Defizit hori eragozpen handia da puntako euskal enpresa eta erakundeentzat, nazioarteko proiektuetan parte hartzeko aukera mugatzen baitaie.

PMP® ziurtagiria (Certified Project Management Professional) proiektuak zuzentzeko lanbide-gaitasunaren egiaztapenik ospetsuena da nazioartean. Azken urteotan, mundu zabaleko erakunde eta enpresek bere proiektuen arduradunei eta beraientzako proiektuak egiten dituzten enpresetako arduradunei eskatutako oinarritzko betekizuna bilakatu da.

Programaren lehen edizioko prestakuntza-saioak datorren azaroan hasiko dira, eta 2009ko martxora arte iraungo dute. Innobasquek Zamudioko Parke Teknologikoan dituen instalazioetan izango da prestakuntza, astean behin, ostiral goizean, parte hartzaileen lan profesionalarekin bateragarri izateko.

www.innobasque.com

www.mondragon.edu/PMIP

